

Herririk Herri |3|

EAJk 2011 urterako aurrekontu proposamena aurkeztu du Durangon



Berbaz |8|

Pilar Ríos: "Krisi garaiotan gizarte eta enplegu politikak sustatu behar ditugu"

Kirola |15|

Eneritz Iturriaga: "Lesioa gainditu egin dut eta konpetiziorako prest nago"



Orain autoak aparkatzeko erabiltzen duten harezko futbol-zelaian gauzatu gura du gobernua egitasmoa. Kepa Aginako

Errekurtsoa kirol instalazio berriaren lanen esleipenari

> Ezker Abertzaleak jarri dio helegitea Abadiñoko Independenteen egitasmoari

> Proiektuak eskaintzeko prozedura administratiboa ez dela bete diote

2

Liburu elektronikoak irakurtzeko gailuak Iurretako Bibliotekan

KULTURA• Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bategaz eskuratu dituzte Iurretako Bibliotekan liburu elektronikoak irakurtzeko hiru e-reader. Iñaki Totorikaguena alkatetik eta Ziortza Onaindia liburutegiko arduradunak asteon aurkeztu dituzte gailuak, eta apiriletik aurrera 15 egunerako maileguan ematen hasiko direla iragarri dute.

12

• Mallabia

Hiri Antolamendurako Plana, herriaren parte-hartzeagaz

7

• Atxondo

Gobernu taldeak mozio bategaz erantzun die EAJren salaketel

6

• Otxandio

2011ko aurrekontuak aho batez onartu ditu udalak

6

• Iurreta

Astelehenean hasiko dira ortu ludikoetan beharrean

7



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofizial de Idiomas

MATRIKULA EPEA:

Otsailaren 11tik
martxoaren 4ra

MATRIKULA LIBREA 2010-2011

EUSKARA, FRANTSESA, INGELESA,
ALEMANA

MATRIKULA ON-LINE EGINGO DA:
Matrikula egin nahi dutenek Internetez bakarrik egin ahal izango dute, honako webgunearen bidez:

www.eoidurango.net



Zubiaurrea, 1 (DURANGO) • Tel.: 94 681 66 45 - 94 620 33 42

HERRIRIK HERRI >

ABADIÑO

Ezker Abertzaleak errekurtsioa jarri dio kirolgunearen esleipen prozesuari

Astelehenean aurkeztu zuen alkateak proiektua; asteon aurkeztu du Ezker Abertzaleak helegitea

Herritarren eta eskolako gurasoen "urteetako eskaria gauzatzea" dela esanez aurkeztu zuen, astelehenean prentsaurrekoan, Jose Luis Navarro alkateak egitasmoa: Traña-Matienan, kirola egiteko estalitako gunea eraikitzeak aurre-proiektua erakutsi zuen hedabideen aurrean. Gobernu taldearen aurreikuspena lanak burutuko dituen enpresa asteon hautatzea dela azaldu zuen Navarrok. "Auzoko jaietarako,

azpiegitura berria udaberrirako amaituta edukitzea" itxaroten dutela azaldu zuen.

Orain aparkaleku legez erabiltzen duten harezko futbol-zelaian beheko infografian ikusten dena lako kiroldegia eraikiko dutela esan zuen alkateak, eta 524.890 euroko aurrekontua duela.

Hain zuzen ere, proiektuaren finantzabideari buruzko helegitea aurkeztu du Ezker Abertzaleak: "Toki Administrazioaren araudiak



Jose Luis Navarro alkatea, astelehenean aurre-proiektua hedabideei aurkezten.

proiektuak lizitzatzeko zehazten dituen prozedura administratiiboak ez dituzte bete". Hau lako proiektu bat finantzatzeko —eta udalak aurrekonturik onartu barik ez daukanez— beharrezkoa den kreditu aldaketa egiteko, lege, udalbatzararen galbahea igaro behar dela dio Ezker Abertzaleak; "halako aurrekontua daukan proiektu bat adjudikatzea ez dago alkatearen eskumenen artean".

Horrelako proiektu bat burutzeko beharrezkoa den "sakone-

Orain aparkaleku legez erabiltzen duten harezko futbol-zelaian gauzatu gura du gobernuak egitasmoa

"Halako aurrekontua daukan proiektu bat esleitzea ez dago alkatearen eskumen artean", Ezker Abertzaleak dioenez

ko eztabaidarik" ez dela sustatu ere salatu du Ezker Abertzaleak: "Hirigintza Batzordean mahaigaineratu zuten proiektua, aurrez gugaz ezer landu barik", kritikatu du Basauri zinegotziak.

"Operazioak juridikoki pegarik daukanik ez dugu uste", esan digu, aldiz, Axier Garate jeltzaileak. Bere berbetan, beste kontu bat da "gobernuaren jarrera politikoki kritikagarria" izatea: hauteskundeak begirako ekimena da EAJ-ren ustez Independentteena. ■ I.E.

Sanblas jaietako egitarauak aurrera darrai asteburuan ere

Zapatuan Burduntziko Bildots Txapelketa eta bildots bazkaria egingo dira

Abadiñon jai giroa izango da nagusi asteburuan. Gerediaga elkarteak antolatutako mahai-inguruan *Baserriko produktuak eta kalitatea* hartuko dute berbagai gaur, 19:00etan, Errota kultur etxean. Eskualdeko baserritarrek produktuak ekoiztu eta merkaturatzeko

'Baserriko produktuak eta kalitatea' berbagai gaur, Gerediaga elkarteak antolatuta, Errota kultur etxean

dituzten arazoen inguruan berba egingo dute. Kepa Uriarte Bizkaia Irratiko kazetariak gidatuko duen mahai-inguruan Iñigo Etxebarria EHNEko kideak, Aitor Solozabal Txarrazaleok elkarteko kideak eta

Txaro Larrinaga Amezketako txakolinaren ekoizleak eta Bizkaiko Txakolina elkarteko kideak parte hartuko dute. Gerediaga elkartearen kazetari zuzenduta ekimen askoren bultzatzaile izan dela azaldu dute. San Blas azoka berrindatu eta berritzeko prozesuan bultzatzaile izan zen 60ko hamarkadaren amaieran.

Zapatuan, Burduntziko Bildots Txapelketa 10:00etan martxan jarriko dute. Bildots bazkaria probalekuan egingo dute ondoren, 14:00etan. Bazkalondoa Alai tal-

deak girotuko du. Domekan, berriz, eskola arteko Bizkaiko Kros Txapelketa jokatu dute, 11:00etan, Astolan.

Mendi martxa

Hamabi Harri auzo elkarteak Sanblas jaietako egitarauaren baitan urtarilaren 30ean antolatutako *Abadiño Auzorik auzo* ibilbidean 350 pertsonak parte hartu zutela jakitera eman dute. Antolatzaileek, horrenbestez, parte-hartzaileei eskerrak eman gura izan dizkiete. ■ J.G.



Jendetza bildu zen Hamabi Harri antolatutako ibilbidean.

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)

Tel.: 946 816 673

Faxa: 946 817 636

construcciones@zarateyexpe.biz

DURANGO

Euskararen aldeko manifestaziora deitu dute hainbat eragilek

Euskal Herrian Euskarazek bihar Donostian egingo duen manifestazioagaz bat egin du hainbat elkartet



Autobusa Madalenatik irtengo da bihar, 15:30ean.

Euskal Herrian Euskarazek manifestazio nazionala deitu du zapa- turako Donostian, *Sasi guztien gai- netikeuskaldun eta burujabe* lema- pean. Durangoko hainbat eragile ere atxikitu dira deialdira; besteak beste, Durangoko EHE, Berbaro euskara elkarte, Durangaldeko AEK, Gazte independentistak, Durangaldeko Ikasle Abertzaleak,

Besteak beste, Berbaro euskara elkarteak eta Durangaldeko AEK-k bat egin dute deiagaz

Jarki ikasle mugimendua, Zapabu- ru gazte konpartsa, Kimuak aisial- di elkarte, LAB sindikatua eta Durangoko Askatasuna. Durango- ko Madalenatik 15:30ean irtengo da autobusa.

Euskal Herrian Euskarazek dokumentua plazaratu du mani- festaziorako irakurketa eta alda- rrikapenekin. Bertan, euskararen kontrako "asimilazio prozesuak" norbanakoengan eragina izan duela "onartu" behar dela dio. "Jokabide aldaketa hau bultzatze- ko, euskaraz bizitzeko hautua egi- teko, norbanakoaren determina- zioa ezinbestekoa da". ■ J.D.

Gaztetxearen urteurren ospakizunean jaia eta hausnarketa batuko dituzte

Gaztetxearen egoeraren eta funtzioen gainean eztabaidatzeko baliatuko dute 12. urteurrena

Sapuetxe gaztetxeak sortu zeneko 12. urteurrena ospatuko du aste- buruan, baina jaia gaztetxearen gaur egungo egoera aztertzeko eta etorkizunean hartu beharreko bidea finkatzeko ere baliatuko dute. Horretarako, zapatuan,

Zapatuan, 11:00etan, eztabaida irekia egingo dute ahalik eta gazte gehienen iritzia jasotzeko

BERRIZ

Rokodromoa itxita, inauguratu eta hiru astera

Eguazteneko ohiko udalbatzarrean, azalpenak eskatu zituen Karmen Amezua zinegotziak

Urzabal kirol azpiegitura berria urtarrilaren 10ean inauguratu zuten, eta hiru astez *Ateak zaba- lik* jardunaldiak izan dira bertan. Orain, baina, itxita dago, eta Ezker Abertzaleko zinegotzi Karmen Amezuak egoera "ulertezina" dela

Txartela erabiliz atea zabaltzeko mekanismoa ez dute oraindino egokitu

Gobernu taldeak aurrekontu "xumeak" proposatu ditu

Diru sarrerak iazkoak baino "apur bat txikiagoak" direnez, gastuak izozten saiatu dira eta inbertsioak hainbat urterako proiektuetan kontzentratu dituzte

Gobernu taldeak 2011ko aurrekontuen zirriborroa aurkeztu du. Iaz 33,6 milioi eurokoak baziren, aurtan 28,9 milioioak dira (%13 gutxia- go). "Krisiaren eragina aurtan ere nabaritu da", azaldu du Aitziber Irigoras alkateak. Beraz, zirriborro "xumeagoa" osatzeko orduan "gastuak izozten saiatu" dira, eta inbertsioak hain- bat urterako luzatzen diren proiektuetan kontzentratu dituz- te; hain zuzen ere, San Faustoko

zentro zibikorako 1.472.000 milioi euro gorde dituzte, eta Urki- Hegoaldeko errepide-lotunea egi- teko milioi bat euro.

Hitzarmenei eutsi diete Orain arte adostutako "hitzarme- nei eusten" saiatu direla azpima- rratu dute, eta berri batzuk ere pro- posatu dituzte: kirol arloan 18.000 eurokoa Durango Rugby Taldea- ri (25. urteurreneko ekitaldietara- ko) eta 30.000 eurokoa Tabirako- ri (EBA mailako estreinako urtean

laguntzeko); gizarte-ekintza sai- lean, berriz, JAED eta Caritasi diru- laguntza gehitu diete, %28an, "badakigulako iaz euren gastuei aurre egin ezinda ibili zirela". Eko- nomia arloari dagokionez, komer- tzioei bideratutako laguntzak %11 igotzea proposatu dute. Bestalde, doikuntza alkatetza eremutik eta jaietako diru-atale- tik (%9 gutxiago) etorri dira. Aurreratu dutenez, proposa- mena otsailaren 22ko udalbatza- rrean aurkeztu gura dute. ■ J.D.



San Fauston zentro zibikoa egiteko 1.472.000 milioi euro gorde dituzte. Kepa Aginako

11:00etan, eztabaida irekia anto- latu dute, helburua ahal denik eta gazte durangar gehienen iritzia jasotzea delako. Jaiari gaur ekingo diote gaz- tetxeko kideek. 19:00etan luntxa antolatu dute; 20:00etan enkar- telda egingo dute eta 21:00etan *AHTren izenean amen* antzez- lana eskainiko dute.

Olinpiadak eta kontzertuak Bihar, eztabaidaren ondoren herri- bazkarian batuko dira eta bazkal- du eta gero olinpiadak antola- tu dituzte. Amaitzeko, 18:30ean, elektrotxaranga eta kontzertu bi egongo dira: 12KM, eta Jeimon Turk Band. ■ J.D.

salatu zuen ohiko osoko bilkuran. Jabier Azpitarte alkateak esan zue- nez, berak "momentu horretan bertan" jakin zuen gaiaren berri, eta "lotsatuta" zegoela aitortu zuen. Kirol arloko zinegotzia Puri Perez (EA) da, eta azaldu zuenez "udalak pertsona bati kontratua egin zion hiru asterako, gero ateak txartela erabiliz zabalduko zirela- ko". Kiroldegian badago txartelak eskatzeko aukera, baina ateko mekanismoa ez dute oraindino ipini, eta kontraturik ez diote luza- tu beharginari. Ez zuen argitu noiz konponduko den arazoa. ■ M.O.

Durangaldeko Behargintza
Eskualdeko Garapen Agenczia
Agencia Comarcial de Desarrollo

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

MINISTERIO DE EDUCACIÓN E INVESTIGACIÓN

DOAKO IKASTAROAK
Langileentzako eta langabetuentzako

PINTXOAK ETA LAPIKOKOAK PRESTATZEKO ERAK
Iraupena: 40 ordu
Klase egunak: astelehenetik ostegunera
Ordutegia: arratsaldez
Aurreikusitako data: 2011ko martxoaren 14tik apirilaren 7a arte

EUSKAL SUKALDARITZA ETA GOZOGINTZA
Iraupena: 40 ordu
Klase egunak: astelehenetik ostegunera
Ordutegia: arratsaldez
Aurreikusitako data: 2011ko maiatzaren 9tik ekainaren 2a arte

IZENA EMATEKO AZKENEKO EGUNA: 2011ko martxoaren 4a
Ikastaroko parte hartzea mugatua da (langabetuak gehienez %40a)

Durangaldeko Behargintza

Laubideta, 6 Durango tf: **94 623 25 22**
Ordutegia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

DURANGALDEA

LABek lurretako ehorztetxea salatu du, "langileekin duen jokaeragatik"

Langile bategaz tira-bira izan eta "kasualitatez" haren neskalaguna eta ama kaleratu ei dituzte

Durangaldeko LAB sindikatuak salatu duenez, Iurretako Nuestra Señora de Begoña enpresan "egoera jasaezina" bizi dute. Gerenteak "langile guztiak mehatxatzen" dabiltzala diote, eta LABeko delegatuari "langileek hauteskunde sindikaletan emandako ardura" kendu egin gura diotela.

Oraintsu izandako kasu bat ipini dute adibide modura. "Delegatuekin berbarik egin barik" osa-

"Egoera jasaezina da eta gerentea langile guztiak mehatxatzen ari da"

tutako lan egutegiagaz ados ez zeudelako, bost langilek salaketa aurkeztu zuten. Gerenteak horietako bati "eraso" egion zion, eta langile horrek salaketa ipini zion. Azkenean ados jartzealortu zuten, eta langileak salaketa erretiratu zuen, LABen esanetan. Ondoren, ordean, "diziplinazko kaleratzea aitzakia moduan hartuta, enpresak langile bi kaleratu zituen; casualitatez, langile horren neskalaguna eta ama".

Era berean, Amorebieta-Etxanoko Ormazabal Taldeko WEC enpresan langile bat kaleratu dute, eta "kaleratzea gezurretan" oinarritu dutela dio LABek. Bide horretatik, "langile mugimendua aktibatuko dugu bi enpresaburu



Nuestra Señora de Begoña ehorztetxean langile bi kaleratu izana salatu du LABek.

horien aurrean, egoera normaldu eta eskubideen defentsa bermatu arte".

Itun soziala baloratuz

Horrelako jardunbideak "egungo lan politikek babesten" dituztela dio LABek, eta bide horretatik oraintsu Gobernuak CEOek, UGTk

Bestalde, LABen ustez, oraintsu adostu duten itun soziala "gezurrez beteriko itun antisoziala da"

eta CCOO adostu duten itun soziala baloratu dute. LABen iritziz "gezurrez beteriko pakto anti-soziala" da: "Euskaldunoi gure erabakitze eskubidea urratu digute. Euskal Herriko gehiengo sindikalak argi esan du ez duela erreforma hori onartzen, eta ez duela Estatu Espainolaren lan-politikagaz bat egiten". ■ J.D.

ELORRIO

Sute batek Mendraka txakolina ekoizten den baserriko teilatua erre du

Goiko solairua ere erre da, baina bodegak eta han gordetako txakolinak ez dute kalterik izan



Joan zen zapatuan sortu zen sutea Mendrakan.

Sute handia izan zen zapatu iluntzean Mendraka auzoan. Hain justu ere, izen bereko txakolina ekoizten duten baserrian gertatu zen ez beharra, eta suhiltzaileek 20 ordutik gora eman zituzten suak guztiz amatatu arteko lanean. Sugarrek teilatua eta goiko solai-

Suhiltzaileek hogei ordu inguru eman zituzten sua itzali eta egoera bideratzen

rua harrapatu zituzten, baserriko bizilekua hain zuzen.

Jabeek azaldu digutenez, baserria hiru zatitan eraiki zen 1876an. Goian lo-lekua eta sukaldea egin zituzten, eta behean korta. Azken honetan egokitu zuten bodega, eta eraikinaren berezitasunak salbatu du ekoizpena. "Kalte pertsonalik ez da izan, eta hori da inportantea", diote. Gainera, Mendrakako Txakolinaren zaleek aurtan ere dastatu ahal izango dutela aurreratu dute. ■ J.D./M.O.

300 bat elorriarrek Gernikako Akordioari babesa eman diote

Herritarrak eta hainbat eremutako elkarte eta eragileak batu dira euren babesa eskaintzeko

Urtarrilaren 20an atera zuten argazkia Elorrioren. 300 elorriarretik gora eta alor askotariko eragileak batu ziren Gernikako Akordioa izenez ezagutzen den 'Bake bidean aterabide demokratikoaren akordioa' dokumentuari atxikimendua eskaintzeko asmoz: "Gatazka konpontzeko aukera ikusten dugu, eta horretarako

Elorrioko Ezker Abertzaleak, Aralarrek eta EAK sustatu dute ekimena

beharrezkoa eta inportantea da guztion inplikazioa, guztion ekarpen txikia", adierazi dute ekimenaren sustatzaileek.

Elorrioko Ezker Abertzalea, Aralar eta EA ibili dira ekimena sustatzen, eta elkarlana ere azpimarratu dute: "Positiboa da alderdi bakoitzak izan ditzakeen diferentziak alboratu eta elkarlanean horrelako ekitaldi bat prestatzea".

Euren babesa eskaini dutenen artean daude, besteak beste, Elorrioko Merkatarien Elkartea, nagusien errugbi taldea eta Larrano parapente taldea. ■ J.D.

ATXIKIMENDUAK

- Elorrioko ezker Abertzalea
- Elorrioko Aralar
- Elorrioko EA
- Amnistiaren Aldeko Mugimendua
- Etxerat
- LAB
- Gazte Independentistak
- Elorrioko Gaztetxea
- Elorrioko euskaltegi irakasleak
- Elorrioko Merkatarien Elkartea (EME)
- Intxorta Asti Taldeko begiraleak
- Besaide dantza taldeko begiraleak
- Portalekua-Beldarrain Arrano elkarte
- Futbito taldea
- Elorrioko Rugby Taldeko nagusien taldea
- Larrano parapente taldea
- Erdella mendizale elkarte zuzendaritza taldea



Elorrioko pilotalekuan atera zuten argazkia bertaratutako guztiek.

 Hortz Klinika
Ekoden

ZX-27 kristalezko inplanteen sistema iraultzailea



sistema honi esker, ez da ebakuntzarik egin behar,
eta protesi finkoa eraman daiteke, hezurrik eduki ez arren

www.hypodent.sk/en/zx_27.html

Arkotxa, 4 - Etxabea • 48200 DURANGO

Tel.: 94 621 78 22

www.clinicaekoden.com

**EZ GARA
FRANKIZIA**

GURE ARDURAPEAN ZAUDE

OTXANDIO



Plazako lanak amaitzeko 190.000 euroko diru-atala gorde dute.

Andikonako plazako lanak dira inbertsio nagusia aurrekontuetan

Iturrizarreko disuasio aparkalekuaren eta handik bolatokiko parkera joango den bidegorriaren proiektuak diru-laguntzak jasotzearen menpe daude

Udalbatzarrak aho batez onartu ditu 2011ko aurrekontuak. Guztira 2.514.000 euroko aurrekontuak dira eta horietatik 890.000 euro bideratu dituzte inbertsioetara.

Hala ere, inbertsiorik handiena eskatzen duen proiektuaren exekuzioa diru-laguntzen menpe dago. Hain zuzen ere, 300.000 euroko atala gorde dute Iturrizarren disuasio parkea egin eta handik hasita bolatokiko parkeraino joango litzatekeen bidegorria egiteko. Jaurilaritzak, ordea, horretarako ez diela laguntzarik emango jakinarazi die eta Aldundiak zer esango zain daude: "Osorik exekutatzea ezinezkoa izango da; Aldundiaren erantzunaren arabere-

Ur-sarean ur-ihesak kontrolatuko dituen sistema digitala ipini gura dute 100.000 euroko atalagaz

ra, aurtentzati bategingo dugu edo ez", azaldu du Aritz Otxandiano alkateak. Horiek horrela, aurtengo inbertsio nagusia Andikonako plazako eraberritze lanak amaitzeko erabiliko dute: 190.000 euro.

Aurtengo uztailean Otxandio bonbardatu zuteneko 75. urteurrena gogoratuko dute. Horretarako, 100.000 euro gorde dituzte, baina diru-atal hori ere jaso dezaketela diru-laguntzen menpe dago.

Mainondo herri eskolan hainbat lan egiteko 42.000 euroko diru-atala gorde dute

Antzeko diru kopurua aurreikusitako dute herriko ur sareko ur-ihesak kontrolatuko dituen sistema digitala ipintzeko.

Mainondo herri eskolan ere konponketak egin gura dituzte, 42.000 eurogaz: besteak beste, gimnasioko akustika hobetuko

dute. Era berean, igerileku biei kloro kontrolagailu bana ere ipin gura diete (orain bat dago bieratzat), araudira egotitzeko. Azkenik, kultur eta kirol taldeen laguntzak mantendu egin dituzte. ■ J.D.

INBERTSIO NAGUSIAK

- Iturrizarreko disuasio parkea eta bidegorria 300.000 euro
- Andikona plazako lanak: 190.000 euro
- Ur sareko lanak 100.000 euro
- Bonbardaketa 75. urteurrenako ekitaldia 100.000 euro
- Medikuntza kontsultategi berriko proiektua 75.000 euro
- Mainondo ikastetxeak hobekuntza lanak 42.000 euro
- Argiteria hobetzea 26.000 euro
- Igerilekuko lanak 24.000 euro

ATXONDO

Mozioagaz erantzungo die gobernu taldeak EAJk egindako salaketei

EAJk dio gobernu taldeak "interes partikularra eta orokorra" nahastu dituela AHTaren erabakietan

AHTaren zundaketa berrietarako desjabetzen auzia tartean zela, joan zen astean Atxondoko EAJk idatzia bidali zuen komunikabideetara, gobernu taldearen jarraera salatzeko. Idatzian, besteak beste, honakoa zioten: "Aurrekontutik 12.000 euro inbertitu dira AHTaren kontrako ekintzetan, ANVren zinegotzi baten familiaren lurretatik tunelaren irteera ateratzen saiatzeko". Salaketa horri eta beste batzuei mozioagaz erantzungo die gobernu taldeak, datoren eguazteneko udalbatzarrean.

Gobernu taldeak ADIFekin kolaboratu barik "oztopoak baino ez" zituela jartzen esaten zuen EAJk oharrean, eta horrek "herriar-

rentzat ibilbide mingarriena egitea" zekarrela.

Salaketei erantzuna

Onintze Oleaga alkateorde eta AHT gelditu! Elkarlaneko kideak EAJko zinegotzien jarrera salatzen du. "Indar guztiak zinegotzietan min pertsonala egitera" bideratu izana leporatu die. "Diru publikoa zinegotzi baten edo haren familiaren interesen alde erabiltzea prebarikazioa" dela eta hori horrela izan dela uste badute "epaitegi gietara jotzea besterik ez" dutela azaldu du. EAJk esandakoa zuzendu ezean ez du baztertzeko berak ere epaitegi gietara jotzea.

AHTaren kontrako lanagatik EAJko engandik "mespretxua baino ez" dutela jaso salatu du Oleagak; ildo horretan beharrezko jarraitzeko asmoa agertu du, "herriar guztiak batuz gero" trena gelditu daitekeela uste duelako. ■ A.U.

O. Oleaga: "Esandakoa zuzendu ezean ez dut baztertzeko epaitegi gietara jotzea"

MAÑARIA

Santa Agedan batutakoa Nikaraguara bidaliko dute

Diriamba herrian iaz abiatu zuten proiektuari jarraipena emateko bideratuko dute batutakoa

Otsailaren 5ean, bezperan barik Santa Ageda egunean bertan, 22 lagun inguru ibili ziren etxeriketxe Santa Agedako koplak kantatzen. Goizean goiz, plazatik abiatu zuten sasoi honetako urteroko kantu-eske. Herrikideek eskainitako dirua (821 euro) Nikaraguako Diriamba herrian iaz abiatu zuten proiektu bati jarraipena ematera bideratuko dute.

AMS gobernuz kanpoko erakundeak herri hartako auzorik pobreeneko umeak alfabetatzeko dihardu lanean; ume horien urteko matrikula ordaintzen lagunduko dute eskainitako laguntzagaz mañariarrek. ■ I.E.



Kantuan jardun zuen mañariar lagun-taldea.

IZURTZA

"Jaioberrien diru-laguntza" zelan banatu zehaztu dute

Seme-alabak erditu edo adoptatzen dituztenentzako udalak diru-laguntza moduan banatzekeko udal aurrekontuetan gorde dituzten 2.400 euroak zer baldintzaren arabera banatuko dituzten zehazten duen ordenantza-aren behin-behineko onarpena egin zuten urtarileko hileko udalbatzarrean aho batez, eta dagoeneko Bizkaiko aldikari ofizialean argitaratu dute.

Besteak beste, eskaria egiten duena gutxienez ondorengo 24 hilabeteetan herrian bizitzea da baldintza

Udaleko alderdi biek batzordean landuta osatu dute arautegia. Besteak beste, "diru-laguntza jasotzeko eskaria egiten duena eskaria egin eta gero ere gutxienez beste 24 hilabetez herrian bizitzea" da diru-laguntza jaso ahal izateko bete beharreko baldintzetako bat. ■ I.E.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Durangaldean labur

Osasunari eta nutrizioari buruzko ikastaroa Abadiñon

Abadiñoko Txanporta kultur etxean osasuna eta nutrizioa landuko dituen ikastaroa antolatu du Landa Inguruko Emakume Elkartek. Eskolak astelehen eta eguaztenetan izango dira, 17:00etatik 19:30era. Izena honako helbidean eman daiteke: emakumeak@landa21.com. Izen-ematea 50 euro da eta euskaraz zein gazteleraz aukeratu ahalko da. Irakaslea Oihane Unzalu izango da.

Petankara jokatzeko gunea inauguratu dute Durangon

Durangoko lehenengo petanka gunea Bruno Mauricio Zabala kalean inauguratu dute, Zirking gimnasioaren ondoan eta Joxe Miel Barandiaran eguneko egoitzaren atzealdean. Petankara jokatzeko gune biak 15 metro luze eta lau zabal dira. "Aisialdirako ez ezik, besoen mugikortasuna lantzeko ere joko aproposa ei da", azaldu du Aitziber Irigoras alkateak.



Errifaren zozketa egin dute Mallabian

Mallabiko Jasokunde eta Mendibil abesbatzek urtero egiten duten errifaren zozketa egin dute oraintsu. Zerbaki irabazleak 1.710 eta 543 dira eta saridunek 20 eguneko epea daukate jakinarazteko. Saria eurek gura duten landetxean asteburuko egonaldi bat egitea izango da.

■ MALLABIA

Hiri Antolamendu Plana, herritarren parte-hartzeagaz

Plan Orokorren talde erredaktoreak zirriborroa osatzen duenean herritarrei aurkeztuko die

Mallabiko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorra herritarren parte-hartzeagaz osatu gura izan du. 2008an herri mailan hainbat irizpide landu zituzten. Orain dela urtebete aholkulari batzordea sortu zuten. Parte-hartzea bultzatu guran bilgune honetan udalean ordezkariak duten alderdiak (Ezker Abertzalea eta EAJ), LAB eta EHNE sindikatuak, kideak, herriko elkarteak bi ordezkari, alkatea, hiritzako zinegotzia, udaleko teknikariak eta aholkulari juridikoa elkartzen dira. Aitor Loiola Mallabiko alkatearen berbetan, "aholkulari batzordea jendeak oso gustura hartu du. Egindako lana oso aberatsa izan da".

Planaren garapenean hainbat urrats eman dituzte. Debarreneko LZIPak Mallabiari zer alternatiba ematen dizkion, zonalde urbanizagarriak zeintzuk izango diren eta beste hainbat gai landu dituzte. Herritarren artean inkesta egin zuten, eta azterketaren balorazioa ere egin dute. Talde erredaktorea zirriborroa osatzen dabil eta datorren hilean herritarrei aurkeztea da asmoa. Alegazioen epea zabalduko dute gero. ■ J.G.

Aitor Loiola: "Aholkulari batzordea jendeak oso gustura hartu du. Egindako lana oso aberasgarria izan da"



Plan orokorra osatzen dabilta Mallabian. Judit Fernández

■ IURRETA

Astelehenean hasiko dira ortu ludikoetan beharrean

Iturburuko partzelek laster ortu itxura hartuko dute. Nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa jaso eta gero, izena eman duten hogeita hamar iurretarek giltzak eman dizkiete, eta astelehenean hasiko dute baratze jarduna.

Ortuko erabiltzaileek beharrerako erremintak eta abonua elkarbanatuko dituzte, eta Ramon Zearreta injeneru agromonoaren laguntza izango dute edozein zalantza argitzeko. Zearretak berak eman die nekazaritza ekologikoaren gaineko ikastaroa ortuen erabiltzaileei.

Hamar partzela hutsik

Iturburun 40 partzela ipini dituzte, 75 metro karratutan produktu ekologikoak ereiteko. Hamar lursail gelditzen dira oraindino betetzeko eta gura duenak martxoan izango du izena emateko aukera. ■ A.U.

■ ZALDIBAR

Ibur-errekako ubidearen konponketak amaitzear

Jaurilaritzak hartu du bere gain 2007an onartu zuten proiektuaren gastua: 3,3 milioi euro

Amaitzear da Ibur-erreaka industrialdeko erretenaren konponketa. URA agentziatik azaldu dute, "azken ukituak bakarrik falta dira"; joan zen urtean, urtarrilean, hasi zituzten lanak.

Industria-pabilioien azpitik eta sekzio hidrauliko eskasagaz zihoan erreka, trazadura berri batetik desbideratu dute. Estali bako trazadura berriak 620 metroko luzera dauka, eta poligonoko

bi bideen artean kokatuta dago. 2,60 metro zabalerakoa da, eta ertz bietan egokitutako hormek 3,10 eta 4,50 metro bitarteko altuera daukate. Hainbat puntutan, erreka gaineko pasabideak ere eraiki dituzte.

Kolektorea

Hondakin-urak Elgoibarko araztegi bideratzen dituen hodi-biltzailera konektatutako kolektore orokorrean bilduko dira; kolektore hau luzatzeko lanetan ere murgilduko dira laster. ■ M.O.

■ GARAI

Kultur etxeko lanak azken fasean sartuta daude

Kultur etxea izango dena egokitzeko lanak amaitzear daude. Asteon, bertan ipini beharreko altzariak erosi ditu udalak, eta martxoaren 14tik 18ra bitarteko astean eroango dituzte hara beharginek. Aurreikuspenen arabera, martxoaren amaiera aldera zabaldu ahal izango dute kultur etxe berria.

Falta diren azken lanotarako 19.000 euroko aurrekontua du udalak. Lanon artean, kultur etxearen kontrola eta segurtasuna mantentzeko, wifia ipiniko dute. Horrela, udaletik kontrolatuko dute zuzenean eraikina. Gainera, sarrera txartel elektronikoa bidezkoa izango da. Bideokamerak ere ipini dituzte jadanik. ■ M.O.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea




Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

NACEX

San Roke, 12 behe (48200 DURANGO)
Tel.: 94 620 01 62
Mug.: 666 444 101
4810.operativa@nacex.es
www.nacex.es
Informazio orokorra: 900 100 000

BERBAZ >

“Proiektuak garestitu izana 430 euro karuago ordaindu du durangar bakoitzak”

Legegintzaldi hau udalean bizi izan duen korapilatsuena izan dela azaldu du Pilar Rios PSE-EEko zinegotziak

Elkarriketa politikoen erron-
da honetan, eskualdeko alka-
teez gainera, alkatetzarik ez
duten alderdi politikoak ere gonbi-
datu ditugu. Pilar Riosek experien-
tzia handia dauka Durangoko Uda-
lean; azkeneko 12 urtean da PSE-
EEko zinegotzia.

Zelan joan da azkeneko legegintzaldia?
Udalan daramatzadan hiru lege-
gintzaldietatik, zalanza barik, hau
izan da konplikatuen. Lehen
urtean alkatea hil zen, bigarren
urtean Ezker Batuko zinegotziak
dimititu egin zuen eta bere postua
ez zuen inork bete... eta horri guz-
tiari zera gehitu behar zaio: gobernu
taldeak egoera ekonomikoaren
aurrean izan duen kudeaketa txarra;
lidergotza eta inplikazio eza. Udala-
ren jarduna gelditu egin du horrek;
ezin da ahaztu 2010ean izan ezik
beste urteetan aurrekontuak onartu
barik egon direla.

“Krisi garaiotan gizarte
eta enplegu politikak
sustatu behar ditugu”

*Iaz zuekin egindako akordioagaz onar-
tu ziren aurrekontuak. Urtea pasatuta,
zelan baloratzen duzu akordio hura?*

Durangorentzat oso ona izan dela
uste dut, eta alderdi sozialistaren-
tzat ere bai, giltzarriak diren proie-
ktuak hastea lortu dugulako. Euren
artean, Urki-Hegoalde eraztuna
amaitzea; Durangoko mugikortasu-
na asko hobetuko duen proiektua
da, eta aurten hasiko litzateke.
Akordio haren beste atal garrantzi-
tsu bat enplegu politikak dira. Gure
eskualdea krisiak zigortutakoenen
aurrean dago, eta Durangoko Udalak
enplegua sustatzea beharrezkoa da.

*Alderdiek izan duzuen zinegotzien bana-
keta dela-eta, akordioak lortzea beha-
rrezkoa izan da legegintzaldian.*

Konposizio hori ona da, gobernu
taldea derrigortu egin duelako akor-
dioak lortzera, baina ikusi dugu
egoerak ez duela bere jarrera aldatu;
gehiengo absolutua balute moduan
jokatu dute batzuetan.

*Krisia da udalen arazo nagusietako bat
orain. Zer egoeratan dago Durangokoa?*
Dauzkagun baldintzekin kudeaketa
hobea egin daitekeela uste dugu,
herritarren krisiaren eragina txi-



“Urki-Hegoalde eraztunak eta trena lurperatzeak
asko hobetuko dute Durangoko mugikortasuna.
Funtsezkoa proiektuak dira guretzat”

kitzeko. Gizarte eta enplegu politi-
ken momentua dela uste dugu, bai-
na gobernu taldea badirudi ardura-
tuago dagoela irudi kanpainekin.
Bestalde, merkataritza indartzea
beharrezkoa da, eta neurri zehatzak
pentsatzeko espazio bat –PERCO
izan daitekeena– eta baliabide eko-
nomikoak behar ditugu.

*Proiektu batzuk atzeratu eta garestitu
egin direla salatu izan duzue.*

Datua daukagu; obrak garestitzeaga-
tik durangar bakoitzak 430 euro

eman behar izan ditu. Hizkuntza
eskola, liburutegia, igerilekuak,
Veracruzeko ermita... legegintzaldi
honetan zabalduak zerbitzu guz-
tien obrak garestitu dira. Igerile-
kuen kasuan, 19 hiletan ia 9 milioiko
aurrekontuaz egin behar zena lau
urtean eta 15 milioigaz egin zen.
Zerbitzu horiek guztiak beharrez-
koak iruditzen zaizkigu, baina ez
edozein prezioan. Igerilekuek prak-
tikoak izan behar dute, garbiketa eta
mantentze-lana erraza eta merkea
izan behar da... eta ez da horrela.

Pilar Rios •

Durangoko PSE-EE

- 12 urte daramatza zinegotzi
- Bizkaiko batzarkidea da azken lau urteetan

“Ezker abertzalearen
azken pausua oso
albiste ona izan da”

*Etxebizitza arloari begira, zer nolako pau-
soak eman beharko lituzke udalak?*

Iazko aurrekontuen akordioan esan
genuen babeseko etxebizitza gaindi-
tu bako ikasgaia zela; azkeneko
hamar urteotan 70 etxebizitza ingu-
ru bakarrik zozketatu dira. Hori
Durangon gutxi da. Akordioari eske-
rrak, Faustegoienan eta Arripausue-
tan 250 etxebizitza eraikitzen hasiko
dira aurten. Hortik 50 alokairukoak
izango dira, lehenengoz. Egiteko
asko dago, baina; gazteentzako
apartamentuak, nagusientzako pisu
tutelatuak... beharko genituzke
Durangon. Eskari asko ditugu;
momentu honetan 3.222 pertsona
daude zerrendetan.

*Epe laburrera, zer beste premiak dauka
lehentasuna PSE-EErentzat?*

Trena lurperatzea oso garrantzitsua
da guretzat. Durangoko mugikorta-
suna guztiz aldatuko du, hoberako.
Orain gobernu taldeak Eusko Jaurla-
ritzagaz hitzarmena sinatzeko beha-
rrean gabilta. Hitzarmena lanak
hasi aurretik sinatu behar zuten.
Garrantzitsua da sinatzea libre gera-
tzen diren lurak egokitzeko. Beste
premia batzuen artean daudenak
aparkalekuak eta lan enplegu politi-
kak dira.

*Ezker abertzaleak asteon eman duen pau-
soari buruz, zer iritzi daukazu?*

Hauteskudeei begira, nik ezin dut
gauza handirik esan, zinegotzi xume
bat naizelako, baina oso berri ona
izan da niretzat. 180 graduko bira
eman dute, eta herritarrek gura
dutena dela uste dut. ■ A.Ugalde

Bautistako
beherapenak


B A U T I S T A
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BEHERAPEN ERREALAK

Erregeei eskatu diegu gure erakustokiak BENETAN MERKATUTAKO
altzariz bete ditzaten.

% 70erainoko deskontuak, altzari-sorta aldatzeko.



urtarrilaren 7tik martxoaren 6a arteko edo izakinak amaitu arteko kanpaina

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera)

Urbite poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

www.bautistamuebles.com

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Sasi guztien gainetik, euskaldun eta burujabe (I)

Sarri sasi artean ibiltzera ohituta gaude euskaldunok. Gaztelera eta frantsesa direnez hizkuntza nagusiak Euskal Herrian, bigarren mailako herritarrek gara euskaraz bizi nahi dugunok. Euskal Herria eta euskaldunak mendean hartzea helburu duen asimilazio prozesuaren oinarrian hizkuntza-ordezkapena bera dago eta egon da beti. Frantziak eta Espainiak, euren marko juridiko eta konstituzioen bidez, sasi ugari erein dituzte herri euskaldunaren inguruan, eta nazio hizkuntza den euskararen menpeko bilakatu da bere herrian. Badugu garaia sasi guztien gainetik gailendu eta Euskal Herrian euskarari zein euskaldunoi dagokigun lekua berreskuratzeko.

Euskal Herriak bizi duen gatazkaren muina dugu hizkuntza gatazka. Euskaraz bizi nahi dugunean, gatazka bera bizi dugu. Hala ere, azkeneko urteetan, gatazkagainditzearen inguruko jardun eta diskurtso gehienak, herria bera eta euskaldunak askatzean baino, Euskal Herria lurralde moduan askatzean kokatu izan dira. Badakigu edozein hizkuntza komunitate nagusi izango den lurraldea behar duela bizirik mantendu ahal izateko, eta horregatik duela garrantzia handia lurraldea askatzea. Gainera, espainiar eta frantziar konstituzioek euskarak lurralde hegemonikoa eraikitzeari jartzen dizkieten oztupoak kontuan hartuta, lurraldea askatzea eguneroko jardunean kokatzea garrantzitsua da. Baina lurraldea askatzea herri euskalduna askatzeko tresna moduan ulertuta. Euskaldunak gara norbanako zein herri gisa askatu beharrekoak.

Herri euskalduna menperatzeko tresnak martxan diren artean ez du etenik izango asimilazio prozesuak, horregatik da garrantzizkoa euskaraz, euskalduna zein hizkuntza komunitatea lehentasunezko izaeraz lantzea. Eta zer bide egin dezakegu horretarako?

Hasteko, asimilazio prozesuak gudan izan duen eragina onartzea dagokigu. Kontzienteki edo inkontzienteki, euskaldunon eguneroko hizkuntza-praktika sumisoa bilakatu da. Hau gainditzeko "zazpi euskaldun + erdaldun bat = zortzi" erdaldun ekuazioarekin amaitu eta praktikaburujabearen aldeko hautua indartzea dagokigu. Jokabide aldaketa hau bultzatzeko, euskaraz bizitzeko hautua egiteko, norbanakoaren determinazioa ezinbestekoa izango bada ere, erabakia kolektiboa da; egin dezagun bada herri moduan euskaldun burujabe bizitzearen alde. Euskaldun izatearen harrotasuna egunerokoaren erdigunean kokatuz, euskaraz bizi den herria nabarmentzea lortuko genuke.

Era berean, lege zein prestigioa egoki landuz lehentasunezko estatusa eskuratu behar dugu euskararentzat bere lurralde osoan. Hizkuntza-politikaren bitartez euskaraz nagusi izateko neurriak hartu behar dira, ezagutu beharrekoa zein funtzio guztietarako hizkuntza izendatuz. Baina aldaketa hauek ez daude gure esku, frantziar eta espainiar konstituzioek ez digute horretarako aukerarik ematen. Horregatik, herriak menpeko izatearilaga eta erabakiak bertatik bertara erabakitzeko aukera izan dezagun, burujabetza behar du Euskal Herriak.

Guri dagokigu euskaldun eta burujabe izateko bidea egitea. Oinarri horretatik euskararen, herri euskaldunaren auzia eguneroko agenda politikoan egoki kokatzeko indar egitea dagokigun bezala. Euskal gatazkaz asko hitz egingo den garaia dagoz, eta garrantzitsua izango da gatazka termino egokietan koka dadin eragitea. Baina herri honek bizi duen hizkuntza gatazka lehentasunez jorra dadin nahi badugu, aktibatu beharra daukagu euskaldunok.

Idea hauen alde indar egiten hasteko deitu dugu EHEtik, otsailaren 12an, mobilizazioa Donostian. Ahalik eta bidelagun gehienek erkarpena ezinbestekoa izango da, beraz, euskaldun bihotzeko guztiei bertaratzeko deia luzatzen dizuegu. Euskaldun eta burujabe izateko determinazioari beste bultzada bat eman diezaiogun, sasi guztien gainetik euskaldunak eta libreak izateko Euskal Herrian.

Durangaldeko Euskal Herrian Euskaraz

Uno, dos, tres, cuatro, cinco...

Modu honetan ematen diot hasiera, zuri zuzendua doan eskutitz honi. Ez dira zenbaki huts batzuk soilik. Ez dira, ez, esku batean dauden atzamar batzuen zenbakiak. Eta gutxiago erdarazko kantu baten letra (ez dakit gogoratuko duzun, gainera, zure garaikoa izango da "y nos dicen las diez y las once y las doce..."). Abaño askoren barrenean dagoen ezinegon baten eta ahaleginen zenbaki handi batzuk bai. Zenbatetan izan ote gara zurekin, euskararen zaintzaren inguruan hitzegiten. Zenbatetan egunerokotasun batean gure hizkuntzak behar duen eta Abadiño beti eman dion eta izan behar duen errespetuaren inguruan eztabaidan. Zurekin alperrik! Jada kokoteraino gaude, hizkuntzari diozun errespetu ezaz. Kokoteraino, beti zerbait egin baino lehen abisatzen zaitugun arren, euskarari egiten dizkiozun mespretxuez. Azkena Sanblasetan ere egin diozu. Udalean, egun hau iritsi orduko, abisatu zitzaizun karteletan euskara ongi zaintzeko, baina zuk ez. 60 kartel inguru erdara hutsean. 'Venta': saltzea edo saltzera zuzendua zegoen lekuaren ingurua adierazi nahi zenuen. Hori ez da despistea ez, larregitan eta mila gauzei justifikatzen duzun moduan. Horrela ezin dugu jarraitu, badakit zure aldetik ez dela inongo aldaketarik izango gai honen zein beste edozein gairen inguruan, baina herriak aldatuko duen esperantzaz nago.

Agur t'erdi.



Endika Zarrabeitia - Abadiño

Klik batean @



Zakarrontzi erabilgarriak

Eskerrak eman nahi dizkiot Durangoko Udalari hain zakarrontzi erabilgarriak jartzeagatik. Bejondaizuela. Maite Agirre

Sei hankako mahaia

Jose Luis Zubillaga
EB-Berdeak

Jaurlaritzaren dekretazoa GLLei

Espainiako Gobernuak azkeneko hileotan egin dituen eta jubilazio adina 67 urtera luzatu eta pentsio sistema aldatzeko aukera ekarri duen dekretu famatuak gauzatu dituen mehatxuekin ahozabalik geundela, hara non jakin dugun, isilean eta zaratarik atera barik, Eusko Jaurlaritzak, Gemma Zabaleta Gizarte Gaietarako kontseilariaren eskutik, "dekretazo" batez, Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradunak murriztu dituela, beharizanik larriena daukatenak itoz, aurrekontua 6,7 milioi euro txikituz eta horrekin Jaurlaritzaren kontuak berdinduz krisiarekin txar-toen pasatzen ari diren lepotik.

Joan zen urtarilaren 18an. gobernu kontseiluak GLL-en dekretu berria onartu zuen, 8.000 euroko patrimonioa gainditzen dutenak laguntza horietatik kanpora utziz. Neurri murriztaile horrekin Jaurlaritzak urrats bat gehiago egin du ongizate estatua ahultzeko ahalginean, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemari beste kolpe bat emanez.

Gizarte-larrialdietarako Laguntzak premiak asetzeko gastuei aurre egiteko erabiltzen dira: alokairua, hipoteka eta jantzea edo sistema publikoak bere gain hartzen ez dituen osasun gastuak bezalakoak.

Joan zen urtean helburu horrekin 24 milioi ziren eta aurreten 17,3 aurreikusi dituzte, krisi ekonomiko handiko egoera honetan, hainbeste lanpostu galdu eta gero, langabeziako prestazioa amaitu zaien askoren azkeneko errekurtsioa GLLak direnean.

Beste behin ere, premiarik gehien daukatenei ordainarazi gura diete egoera.

Langabeziako prestazioa agortu zaien azkeneko errekurtsioa diren GLLak murriztu dituzte, dekretuz



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2011ko otsailaren 11 - 9. urtea - 403 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onandia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

MUSIKA > ELKARRIZKETA



Platerueneko gau elektronikoen II. urteurrenako jaia prest daukate

Iker Undersound berriztar eta **Ruben Costas** durangar gazteak dira orain urte bitik, hilean behin, **Gau Elektronikoa** antolatzen dutenak Durangoko Plateruenean. Durangoko kafe antzokiko musika elektronikoaren jaien sustatzaile eta antolatzaileek eurek azaldu digute zertan datzan otsailaren 18ko jaia

Jai berezia antolatu dute otsailaren 18rako Plateruenean: Gau Elektronikoa antolatzen hasi zirela bi urte igaro dira, eta “ospakizun berezia” egingo dutela aurreratu digute jaiaren antolatzaile eta musika-jartzaile diren Iker eta Rubenek. Azken urte bietan Plateruenean hilean behin egin duten legez, Costasek eta Undersoundek jarriko dute musika, eta jaia berezi egiteko “nazioartean oso ezaguna den Dynamic zigiluko Uner gonbidatu dugu”.

Gaueko hamarretan hasi eta 06:00etara arteko jaia da datorren barikuan Plateruenean ehunka gazte bilduko dituen. Inoiz, San Fausto jaien ordutegi bereziak ahalbidetu izan duelako, 08:00ak arte egon izan dira musika ipintzen, baina “zoramen da hori, ordu larregi”, gazteek diotenez.

“22:00etan hasi eta 06:00ak arteko jaia izango da urteurrenkoa”

“Bisuala eta musikala” izaten da Gau Elektronikoetako ikuskitzuna, gazte biek azaldu dutenez: “Kontua musika ipintzen ari denak entzuleari zeozter transmititzea da”.

“Emanaldietan eskainiko dugun musika Interneten eskuratzeko”, azaldu digute Ikerrek eta Rubenek, “www.beatport.com

“House eta tech-house doinuak dira normalean ipintzen ditugunak”

helbidean, esaterako, eta horrekin jokatzeko dugu *set*-etan; emanaldietan”. Bietako bakoitzak hautatzen duen musikaren ezaugarriez galdetuta, gutxi gorabehera biek “estilo” bera jarraitzen dutela azaldu digute Ikerrek eta Rubenek; euren nahasketen oinarria *house* eta *tech-house* doinuak direla azal-

du digute. “Musika afrikarra kantatzen duen emakume baten ahotza”, ipini digute adibide, “erritmo base batekin nahasten dugu”. Azaldu digutenez, Plateruenean gehienetan bakarkako emanaldi bana egiten dute lehenengo; ordu betez bakoitza aritzen da bakarka, eta “behin ikuslegoa berotu denean”, 01:00ak aldera, artista gonbidatua igotzen da oholtzara. Geroago, 03:00etatik aurrera, biek elkarrekin ipintzen dute musika; “back to back”, eurek esaten dutenez.

“Ardurak ahaztea lortzen dugun unean gozatzen dugu emanaldian gehien”

Oso entzule gazteak biltzen dira jaiotan: 17 eta 20 urte bitartekoak


“Plateruena oso estresagarria izaten da guretzat”, onartu digute, “ekimenaren sustatzaileak gare-lako, arduratuta egoten gara dena ondo ateratzen ote dabilen: unerik onena lasaitzea lortzen duguneko da, gauzak bide honetik doazela seguru gaudenean”.

Jai hauetara gerturatzeko dena Gau Elektronikoan lehenago ere egon den jendea izaten dela azaldu digute: 17 eta 20 urte bitarteko gazteak gehienak. Iker eta Ruben eurak ere gazteak dira oso; 20 eta 25 urte dauzkate.

Beste hainbat lokaletan ere egiten dituzte emanaldiak Ikerrek eta Rubenek; Image-n, Txitarro-n... Platerueneko emanaldien berezitasunagatik galdetuta, baina, “Plateruenekoa ez da musika elektroniko hain serioa izaten, dantzagarriagoa eta dibertigarriagoa izan dadin saiatzeko gara”.

Egiten dutena “musika fina, oso landua” azpimarratzen dute, askok aurreiritzi askogaz begiratzeko dion arren; entzun barik baztertzen ei du zenbait jendek. ■ I.E.

“Gogor lan eginda, atera daiteke bizimodua honetatik”



Musika talde batean gitarrak jotakoa da Iker, eta urte askoan Durangoko Lurpe diskotekan ipini du Rubenek musika. Azaldu digutenez, Txitarro diskotekan DJ den Patt eza gutu zutenean hasi ziren musikaren gaia serioago hartzen.

Lehenengoko urteetan, musika asko entzutea eta ikastea dela oinarria nabarmendu digute: “Hasi ginenean hori zen oinarrizkoena; musika asko entzutea, gero horretatik zeozter sortu ahal izateko”.

Unea ailegatu zenean, iaz, “gauzak ondo eginez gerobizimodua honetatik ateratzea posible dela” ohartu ziren. Eta horretan dabilta ordutik: “Lan asko egiten”. Esfortzua,

gogoia eta seriotasuna nahasten dute eguneroko lanean: emanaldiez eta sorkuntzaz gainera, interneteko sare-sozialak elikatzen, kartelen diseinuan... lan handia daukatela kontatu digute.

Besteak beste, Interneteko sare-sozialei eskerrak, musika elektronikoaren munduan diharduten promotoreekin, zigiluetako jendearekin, harreman-sare indartsua sortzea lortu dute.

Musika mota honen osasuna Euskal Herrian primerakoa dela diote Ikerrek eta Rubenek; hemen goaz gainera, joera berrienak eza-gutzeko, besteak beste, Eivissan egiten dutenari begiratzen diote.

LITERATURA > TEKNOLOGIA

Liburu elektronikoak irakurtzeko hiru gailu mailegatzeko aukera Iurretako Bibliotekan

Apirila arte proban izango dituzte aparatuak, eta ordutik aurrera 15 egunetarako hasiko dira erabiltzaileei mailegatzeko

Eusko Jaurilaritzak teknologia berriak eskuratzeko eskaintzen duen dirulaguntza baliatuta, liburu elektronikoak irakurtzeko hiru euskarri erosi dituzte Iurretako Herri Bibliotekan. Apirileko Liburuaren egunerako aurreikusten dute liburutegiko kudeatzaileek aparatuak erabiltzaileen mailegurako aukerari ipintzen hastea.

Ziortza Onaindia Biblioteka-k kudeatzaileak eta Iñaki Totorikaguena alkateak egin dute euskarri berrien aurkezpene. Apirilean irakurleentzako aukerari ipiniko dituzten irakurgailu elektronikoetako (*e-reader* edo *e-book*) bakoitzean, "euskal literaturako eta literatura espainiarreko mila klasiko" eskainiko dituzte. Bibliotekak herritarren eskura ipintzen dituzten baliabideei (orotariko liburuak, ordenagailuak, aldizkariak eta egunkariak...) "beste aukera bat gehitzea" da bilatu dutena.

Ukipen-pantaila daukaten aparatuak dira Bibliotekan eskuratu dituztenak; besteak beste, Internetarako kable bako konezioa, azpimarratu eta oharakidazteko aukera, irakurri bitartean audioa erreproduzitzeko, eta abar eskaintzen dute. Autonomia handiko bateriak daukela nabarmendu dute aurkezpenean: kargatu beharrik barik, 10.000 orrialde igeratzeko autonomia daukate.

Adinez nagusiek eroan ahalko diztute aparatuak etxera maileguan

Liburu baten papera balitz lako efektua egiten duen pantailan, bestalde, testuaren tamaina handitu eta txikitzeko baliabideak eskaintzen dituzte irakurgailu elektronikoak. "Ikusmen arazoak dituen jendearentzat oso baliagarria izan daiteke aplikazio hau",

azpimarratu du Onaindia liburutegiko arduradunak. Letrei pape-rekoen itxura handia ematen die tinta elektronikoaren teknologiak.

Bibliotekako kudeatzaileek proban izango dituzte aparatuak apirila arte, eta ordutik aurrera apa-

Euskal literaturako eta literatura espainiarreko mila irakurgai bilduta

ratuaren erabilera arauak onartzen dituzten 18 urtetik gorako lagun guztiek hartu ahalko dituzte maileguan, 15 egunerako.

Egile eskubideen arautegiak agintzen duenez, gutxienez, orain 70 urte hildako autoreen obrak bakarrik zabaltzea daitezke irakurgailu elektronikoon bitartez.


Beraz, eta aurkezpenean azpimarratu dutenez, irakurleek ez dituzte berritasun literarioak topatuko euskarri hauetan: irakurgaien zerrendan, gutxienez orain 70 urte argitaratutako obrak izango dira erabiltzaileentzat aukeran. ■ I.E.



PINTURA > ERAKUSKETA

Ismael Iglesias artista durangarraren hamarkada bateko lana Eibarren

Portalea aretoan, domeka arte daude Iglesias margolari durangarraren lanak erakusketan



David Maeztu

My way, no way, no way izeneko erakusketa da, urtarrilaren 14tik domeka honetara arte (otsailaren 13a arte), Ismael Iglesias durangarraren obraren azkeneko hamar urteetako ibilbidearen zati bat erakusten duena.

'Prácticas bastardas' izeneko proiektu berria eta argitalpen berri bi

Eibarko Bista Eder 10eko Portalea erakusketa aretoan, 18:30etik 20:30 arte egongo da erakusketa zabalik. Lehenengo begiratuan irudi abstraktuz osaturikoak dira erakusketarako Iglesiasek bildutako koadroak: gehiago begiratu, baina, irudi orokor horretatik erreferentzia zehatzagoak ere identifikatu daitezke.

Erakusketarako bildu dituzten bere margolanen ibilbidea jarraituta, azken hamar urteotan artista durangarrak landu dituen esperuak ezagutu genitzake. Aiputako 2000 eta 2010 urteen artean burututako lanekin batera, *Prácticas Bastardas* izeneko proiektu berria eta *RGByDancing with your eyes* lanaren argitalpen berriak ere bildu ditu 2011 urte hasierako erakusketa horretan Iglesiasak.

Arte Ederretan lizentziatua, pintura eta ikus-entzunezkoetan espezializatutakoa da Ismael Iglesias. Hainbat sari jaso izan du bere lanengatik, eta hainbat erakusketatan hartu izan du parte. ■ I.E.

Urtarrilean inauguratu zuten, eta domeka arte egongo da ikusgai



OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

ODONTOLOGIA




B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO
tf: 94 620 11 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ
tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ
tf: 94 622 50 99



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiropodia; Onikopatia; Alterazio
Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO
tf: 94 620 36 30



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO
tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO
tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz
tf: 94 603 32 46 - 629 245 728



HIRU FISIOTERAPIA

astelenehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO
tf. 94 466 94 00

**HEMEN AGERTU
GURA BADOZU,
DEITU:**

94 621 79 02



ARTEA > BERBALDIK

Arte garaikidearen inguruko gogoeta eta praktika zikloa

EHUko Arte Ederretako Rekalde dekanoa, Lopez artista eta Artetxe kritikaria hizlari

Atzo iluntzean burutu zuten Artearen Ezaupidea zikloaren VIII. edizioaren lehenengo hitzordua, eta Josu Rekalde EHUko Arte Ederretako dekanoa eta artista izan zen saioa gidatu zuen hizlaria. *Arte garaideari buruzko gogoetak eta*

Teknologia berriek arte garaikidean duten eragina aztertuko dute

praktikak da aurtengo edizioaren izenburua, eta atzokoaren ondoren beste berbadi bi ere jasoko ditu zikloaren egitarauak. Durangoko Kurutzesantu Museoa, 19:00etan hasita izango dira otsailaren 17ko eta 24ko berbaldiak ere. Performance ekintzak burutzen dituen

artista da otsailaren 17ko hitzordurako gonbidatu dutena: *El artista: ubicuidad y mirada nueva* berbaldia eskainiko du Maider López donostiarrak. Otsailaren 24an, berriz, *Banalización y arte actual* izenburuko hitzaldia eskainiko du José Angel Artetxe arte kritikari eta komisario independenteak.

Teknologia berriek arte-praktiketan duten eraginari buruzko gaiak jorratzea ipini dute zortzigarren edizioaren helburu legez: besteak beste, Internetek edo argazkigintza digitalak ekarri dituzten aldaketek artistengan eta artean duten eragina landuko dute. Arte garaikidearen inguruan sortzen zaizkigun galdera eta zalantzak erantzuten saiatzeko, edo gutxienez hitzaldietan eskainitako arrasto horietatik abiatuta gogoeta bideratzeko gogoz antolatzen dute Artea Ezaupide.

Arte garaikideaz sarri sortzen diren zalantzen eta galderen inguruan

Parte-hartzaileei, artearen inguruko gaiei buruzko iritzia eta diskurtso landu eta kritikoa erakitzeko baliabideak eskaintzea da asmo nagusia, zikloaren antolatzailen hitzetan. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jon Ander Urkiaga
Ikaslea

Euria ari du

Euria ari du leihoretatik beste aldera. Kristal zati garden batek baino ez zaitu babesten. Entzun daitezke autoak ur putzuetatik igarotzen; baina, inork ez ditu momentu batez oinak gelditu, eta inork ez die mendi elurtuei so egin. Hotz dago kalean. Otsaila ere aitzinera joan arren, dezentetala da udaberrira heltzeko (eta iritsitakoan ere ezer gutxi izango du berritik), eta berdin da Izurtza, Gasteiz, Tafalla, Baigorri edo Pasaian egon. Etxe barruan, aldiz, berogailua aspaldian dago isiotua. Alferrik da, ordea. Izotzak jantzi du dena.

Musika jartzerakoan F.M.-ren kimikoki aldatu gabeko hasiera hartako disko bat jartzeko eskatu dizu buruak; eskuek, oster, X.L.-ren ahots urratuaren alde egin dute. Patua.

Pianoa ikus daiteke harria baino are gogorragoa den zerbait harrabotsez zizelkatzen, kolpetik kolpera intentsitatea ugarituko bailitza.

Telefonoak behin eta berriz dihardu joka, sakelakoan mila eta bat mezu... baina mundu alu horretatik kanpo bizitzea nahia go duzu. Loturarik gabe, katerik barik; libre.

Kafesnea da bero dagoen gauza bakarra (mikrouhin-labearen mirariak; aurrerapena deitzen diote batzuek), alabaina, gaur kafe hutsa gura zenuen –berandu-, garratza, mingotsa. Azukre-rik ez. Dagoeneko hotzitu da.

Euria ari du leihoretatik beste aldera. Mendi goietan elurra. Egun hitsa, egun hotza. Berogailurik ez. Beste liburu bat aldamiotik behera.

Eta, agian, nork edo nork galde egin dezake (zilegitasun osoz) iritzia artikulatu honek zer egiten duen astekari bateko kultura orrialdeetan. Bada, B.U.-k E.J.-n K.S. moduan egiten duen gauza berbera. (Hau da, ezer ez).

SAIOAK

Otsailak 17

El artista: Ubicuidad y mirada nueva, Maider Lopez artista eta performance-a

Otsailak 24

Banalización y Arte actual, Jose Angel Artetxe arte kritikari eta komisario independentea

Berbaldi guztiak, 19:00etan, Durangoko Kurutzesantu museoa



FILMA > EMANALDIA

Saharako egoera 'El problema' dokumentalean

Jordi Ferrer eta Pablo Vidalek ekoiztiriko lana da, otsailaren 16an, Elorrioko Iturri kultur etxean eman eta ondoren berbaldian landuko duten *El problema* dokumentala. Eguaztenean, 18:30ean eskainiko dute filma, izan ere, egun horretantxe beteko baitira 35 urte Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutenetik.

"Zergatutako litzateke *kamera txiki bat daraman norbaitek lurralde hartara sartzeko saiakerarengingoa balu?*", da egileek mahai-gaineratzen duten egoera. Marokoko gobernuak 'el problema' deitzen duen eta "munduak ezagutu dezan gura ez duenari" buruzko irudiak eta berbak biltzen ditu dokumentalak. ■ I.E.

ARTEA > ERAKUSKETA

Joan zen mendeko 70eko hamarkadan sortu zuten margolari abangoardisten taldeko kide izan zen Rosa Valverde donostiarrak; taldeko emakume bakarra eta gazteena zen Valverde, eta, besteak beste, Sistiaga, Goenaga, Zurriarain edo Amezttoy zeuden taldean.

Margotzen *Academia libre de los jueves* izeneko eskolan hasi zen emakumeak bere ibilbidean zehar osatutako hainbat lanen bilduma da Durangoko Arte eta Historia Museoa otsailaren 27a arte ikusgai izango duguna. Lehenengo bakarkako erakusketa 1976an burutu zuen artistak. Bere ibilbide oparoaren erakusle den bilduma dago Museoa. ■ I.E.

Margolari abangoardisten taldean jardundakoa da Valverde donostiarrak

Rosa Valverderen lana Durangoko Museoa

Margolari abangoardistan taldekide izan zen artistaren lana daukagu otsail amaierara arte Durangoko Museoa



PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

OTSAILAK 11 22:00etan
JABIER MUGURUZA
KONTZERTUA. Sarrera: 10euro.

OTSAILAK 12 22:00etan
NASHVILLE PUSSY + POSITIVA
KONTZERTUA. Sarrera: 15-18euro.

OTSAILAK 13 19:00etan
1000 MILLA
DIAPORAMA HITZALDIA. Sarrera doan.

OTSAILAK 17 20:00etan
Amets Arzallusek JON SARASUA
BERBERTAN. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

NO ME HAGAS DAÑO

Tantaka Teatro (Donostia)

Otsailak 13 • 19:00

San Agustín KULTUR GUNEa
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

11:54 681 07 76 Artekale, 14 Durango

KIROLAK >

“Aurten etxeko talde baten arituko naiz, baina helburu berberak ditut”

Hainbat urtean kanpoan ibili eta gero, etxera itzuli da Eneritz Iturriaga (Abadiño, 30 urte). Lointek taldean, “Estatuko talde onean”, arituko da. Lesioak atzean utzi eta lehengo maila berreskuratzea du helburu.

Lesio batetik irten berri zara. Guztiz osatu zara?

Lesioa maiatzean izan zen; lepauzaia eta trokiterra apurtu nituen. Guztira, birritan operatu naute, eta 6 hilabete behar izan ditut osatzeko. Urtarrilean lasterketetan parte hartzeko baimena eman zidaten. Gorputzak ondo erantzun du, eta burua ere konpetiziorako prest daukat. Lesioa atzean utzi dut, eta pozik nago, beraz.

Azken urteetan hainbat lesio izan dituzu. Nola eragin dizu horrek?

Bigarren operazioa eta gero, nahiko baxu egon nintzen psiko-

piar Jokoetara sailkatzeko. Martxoan klasikoekin ere hasiko gara. Munduko Txapelketan, lehenengo hamabosten artean sailkatzea gustatuko litzaidake. Ondoren, uda aldean, Emakumeen Biran eta Espainiako Txapelketetan parte hartuko dut.

Zelakoa izan da Italiatik itzultzeko prozesua?

Prozesua baina, lesioaren ondorio izan da. Italian ondo egon naiz, baina lesioak gogorrak egiten dira etxetik kanpora; han ere babestuta egon naiz, taldeak han jarraitu nezan gura zuen, baina ez dut indarrik izan Italian jarraitzeko. Horrez gainera, han lesio asko izan ditut, eta hona itzultzeko beste arrazoi bat hori izan da.

Lointek taldean hasi zara aurten. Nola hartu zaituzte?

Nahiko berria da guztia niretzat. Lehendik ere ezagutzen dut jendea; bistaz bakarrik, ordea. Urtarrilean, oster, kontzentratuta egon gara, eta nahiko ondo egon gara. Ilusioa somatzen da. Eurak gustura daude nigaz, baita neu be eurekin.

Zer rol beteko duzu taldean?

Argi utzi didate hori lehenengo egunetik. Gazteagoei nire esperientzia helarazi behar diet; urte asko daroat txirrindularitzan, eta

Orokorrean, oinarri-kirola nahiko alboraturik dago. Lana egiten da, baina ez dago garapenik

Gorputzak ondo erantzun du, eta burua ere lehiarako prest daukat

logikoki. Oso gogorra egin zitzaidan bi hiletan bakarrik lehiatzea. Aurreko lesioak denboraldi erdian gertatu zitzaizkidan, eta denboraldi erdian aritzeko zortea izaten nuen, behintzat. Jada ez ditut lehengo 20 urteak, eta zailagoa da osatzea. Etxean egoteak asko lagundu dit, baina. Min hartzen dudana lehenengo aldia ez izan arren, azkeneko hau oso gogorra egin zait.

Denboraldi berria hastera doa. Zer helburu daukazazu?

Aurten etxeko talde batean arituko naiz, baina helburu berak daukat. Munduko Txapelketan parte hartzea eskatu nuen, Olin-



Lehenengo denboraldia du Iturriagak Lointek taldean.

esperientzia hori helaraziko diet gazteagoei. Horrez gainera, nazioartean dudana eskarmentua baliagarria izango zaio taldeari. Ibiltzea garrantzitsua da, baina baita burua erabiltzen jakitea ere; ezberdina da 30 laguneko osatutako pelotoian joatea, edo 150 pertsonako batean joatea.

Lucia Gonzalez (Espainiako 23 urte azpiko txapelduna) taldeki-dea duzu. Zelan ikusten duzu taldea?

Taldea Estatuko onena dela uste dut. Espainiako Txapelketa ez irabazi arren, hainbat lasterketa irabazi dituzte. Taldeko beste kide bat ere, Belen Lopez, Munduko Txapelketan aritu da. Nazioartera jauzia ematea da helburua; Italiako Giroan parte hartzeko gonbidapenaren zain gaude orain, adibidez. Asmoa datozen urteetan gonbidapenaren zain ez egotea da; hau da, nazioarteko txapelketetan zuzenean parte hartu ahal izatea.

Zelan ikusten duzu emakumezkoen txirrindularitza?

Orokorrean, oinarri-kirola nahiko alboraturik dagoela uste dut. Lana egiten da, baina ez dago garapenik. Euskal Herri zein Estatu mailan lehiatu eta irabazteagaz konformatzen gara.

Nazioartean nabarmentzeko, oster, beste maila batean egon behar da. Horregatik joan nintzen ni Italiara. Hala ere, asko ikasi dut hemen ere.

Hemen hobbytzat hartzen da txirrindularitza; ikasketa edo lanagaz uztartu behar da

Alde handia dago Italiaren eta Euskal Herriaren artean?

Bai. Hasteko, mentalitate aldetik. Hemen hobbytzat hartzen da txirrindularitza; ikasketekin edo lanagaz uztartu behar da txirrindularitza. Italian ez, ordea. Lehen mailako talde batean ibiliz gero, 24 orduak eskaini behar dizkiozu.

Hasi zinenetik hona, asko aldatu da emakumezkoen txirrindularitza Euskal Herrian?

Nire ustez, nahiko antzera jarraitzen du. Hala ere, kontuan hartu behar da bederatzi urte daramatzadala hemendik kanpora lehiatzen. Hala ere, anbizio falta somatzen dela uste dut. ■ A.M.

> Bideoa: www.anboto.org

Hamar urte eta gero, galdu egin du Abadiñok sokatiran

Abadiño sokatira taldeak ia 10 urte zeramatzan zortziko goma gaineko txapelketa denak irabazten. Marka ikaragarri hori joan zen astean hautsi zen. 640 kilora arteko finalean hirugarren amaitu zuen Sokarriren eta Ibarraren atzetik. Ibarraren kontra desenpatean galdu zuen Abadiñok. “Galtzak pena ematen du, baina bagenekien errekorra noizbait apurtu behar zela”, adierazi du Edu Mendizabal entrenatzaileak. Laster 600 kilora artekoa hasiko dute. Bestalde, hilaren 25etik 27ra Herbehereetara joango dira, hango txapelketa batean parte hartzeko. ■ J.D.

Frontenis txapelketa hasiko dute Mallabian

Aurten laugarren aldia egingo du Mallabiko frontenis txapelketa. Herrian kirola sustatzeko helburuagaz sortutako txapelketak arrakasta handia izan du lehenengo alditik, eta herriko bikoteak ez eze Durangalde osokoek eta handik kanpokoek ere parte hartu izan dute.

Aurtengo aldian parte hartu gura duenak martxoaren 3a arte dauka izena emateko aukera, 669 028 718 telefonora deituta.

Parte-hartzaile guztiek gutxienez hiru partiduko jokatu behar dituzte, antolatzaileen esanetan. Izen ematea 2,5 euro izango da bazkide direnentzat eta bazkide ez direnentzat, berri, 12,5 euro. ■ J.D.

Errugbi eskolen kontzentrazioa egingo dute

Asteburuan Araba, Bizkaia eta Kantabriako errugbi eskolek kontzentrazioa egingo dute. Guztira, 300 gazte parte hartuko dute biharko kontzentrazioan. Hainbat mailatako neska-mutilak batuko dira; gazteenak Arripausetan egongo dira; infantilak, oster, Elorrioren batuko dira 10:30etik aurrera. Durangoko Sukia Rugby Eskolak antolatuta du kontzentrazioa, Elorrioko Rugby taldearen laguntzagaz. Bestalde, DRTk Estatuko Kopako partidua jokatu du bihar, Hernaniren aurka. Partidua 16:00tan hasiko da Arrasaten. ■ A.M.



Agirrebeitia Italian, munduko onenen artean

Bihar, Enduro Munduko Txapelketa abiatuko da. Jon Agirrebeitia Euskal Herriko parte-hartzaile bakarra izango da lehia horretan.



Iaz parte hartu zuen lasterketan, zazpigarren amaitu zuen Jon Agirrebeitia berriztarrak.

Enduroko Munduko Txapelketa hasiko da asteburu honetan. Lehenengo proba bihar ospatuko da, Lucan (Italia); Hell's Gate proba gogorak emango dio hasiera txapelketari. Jon Agirrebeitia berriztarra da bertan lehiatuko denetako bat; iaz parte hartu zuen lehenengoz horrelako proba batean.

2010. urteko lasterketan 7. amaitzea lortu zuen Agirrebeitiak (denboraz kanpo izan bazen ere), eta aurten ere emaitza hori lortzea edo hobetzea du helburu. Berriztarra atzo abiatu zen Italiara, "gogoagaz eta ilusioagaz". Iazko emaitzak lortzea gaitza izango dela aurreikusten du, hala ere: "Lasterketa oso gogo-

Txapelketako hiru probatan aritzeko asmoa du berriztarrak

rra da, iaz bik bakarrik amaitu ahal izan zuten". Iazko proba, Dougey Lampkim eta Graham Jarvis motoristek bakarrik amaitu zuten kontrolaren barruan. Goizean hasita, hainbat orduan jarduten dute motor gainean; teknikoki trebeak izateaz gainera, motoristak fisikoki egoera onean egon behar dira, beraz.

Esan bezala, Agirrebeitiak iaz parte hartu zuen estreinakoz

Enduroko Munduko Txapelketan. Bi probatan aritu zen, Italiako Hell's Gate eta Austriako Erzberg Rodeon, hain zuten ere. Bi probetan lorturiko emaitzekin gustura geratu zen Jon Agirrebeitia; Austriako proban 18. amaitu zuen. Aurten, oster, hiru probatan parte hartzeko asmoa azaldu du motoristak: "Ekainean Austriako ospatuko den proban aritzeko asmoa daukat. Ondoren, uztailean Errumaniakoan jarduten ahaleginduko naiz". Guztira, bost lasterketek osatzen dute Enduroko Munduko Txapelketa; Hegoafrikako Roof of Africa eta Erresuma Batuko The Tough One probek osatzen dute txapelketa. ■ A.M.

Elorriok lidertza defendatuko du Urduñan

Emakumeen arteko lehiak Elorriok lider dela egingo dio bisita, etzi, Urduñari. Joan zen asteburua biribila izan zen Elorrioren-tzat. Pauldarrak B arerio zuzenari 5-4 irabazi zioten eta, hori gutxi balitz, Sestaotarrak era Berrio-Otxoa Bk ezin izan zituzten euren neurketak irabazi.

Ondorioz, Elorriok puntu biko aldea ateratzen dio Sestaotarrak taldeari eta zortzikoa Berrio-Otxoa B eta Pauldarrak Bri. Elorrio bigarren erregionaleko talderik golegileena da; 17 partidutan 48 gol egin dituzte, batez beste, ia hiru gol nor-gehiagoka bakoitzeko. ■ J.D.

Lidergoa estreinatuko du derbian Mallabiak

Kurutziagak liderra hartuko du Landakon. Mallabia sasoi onean heldu da derbira.

Domekan derbia jokatu dute Kurutziaga ikastolak eta Mallabiak. Partidura alde ederreko egoeran helduko dira taldeak; Gernikari 8-3 irabazi ondoren, lehenengo postura igotzea lortu du Mallabiak. 17 jardunaldi jokatu ondoren, Mallabiak 35

Kurutziagak beheko postuetan jarraitzen du; 9. da orain

puntu lortu ditu, eta 2 puntuko aldea du Inter taldearekiko. Kurutziaga, oster, ez dabil hain fin. Tolosalaren aurkako partidua 3-6 galdu zuen, eta beheko postuetan jarraitzen du; 9. postuan dago Kurutziaga.

Partidua domekan jokatu dute, Landako kiroldegian, 12:00etan. Bestalde, Nazional A mailan, Sasikoak Burlades taldea hartuko du. Biak ala biak, beheko postuetan daude, eta beharrezko dute puntu horiek poltsikoratzeko. ■ A.M.

Mikel Bilbao

• Radio Euskadiko kazetaria



Egiaren ordua

Adituarentxokoa

Binakako Txapelketako une erabakigarrian gaude; bost jardunaldiren faltan, finalerdietara igaroko diren bikoteak zeintzuk diren erabakitzen ari da. Haimar Olaizola - Begino eta Xala - Barriola bikoteek ziurtaturik dute hurrengo faserako txartela; beste bi postuetarako bost bikote dituzte aukera errealak. Horietako bat Pablo Berasaluzek eta Alexis Apraizek osatzen dutena da. Gaur partidua erabakigarria jokatu dute Gonzalez eta Laskurainen aurka. Partidu borrokatua izango da, baina konfiantza dut bikote bizkaitarrarengan; irabazi eta finalerdietara gehiago hurbilduko direla uste dut. Partidu erabakigarria da, gainera; puntua poltsikoratzeko gain, bikote galtzaileak puntu hori ez irabaztea lortuko du partidua irabazten duenak.

Bestalde, aro berria hasi du Frontisek. Karmelo Ariznabarretak eta Carlos Armendarizek zuzenduriko enpresak Bizkaiko Irekia antolatu du. Txapelketa Zornotzatik igaroko da. Horrez gain, txapela Abadiñoa etorriko dela uste dut, Alberto del Reyren baimenarekin, behintzat. Antxia da faborito nagusia, baina ziur naiz Rober Uriartek eta Egoitz Amantegik ere txapelketa ona egingo dutena.

Amaitzeko, otsaila hile garrantzitsua da Master Jairentzat. Datozen asteetan Master Jai proiektuaren etorkizuna definituko da. Enpresaren taldea Imanol Agirrek ikuskatuko du, eta Axier Berasaluze, Xabi Galarza, Mikel Gonzalez eta Rober Uriartek osatuko dute, besteak beste. Guztia aurreikusi bezala badoa, otsailean zehar aurkeztuko da taldea.

* Erredakzioan itzulia

Gonzalez-Martin, modako bikotea trinketeen

Mikel Gonzalez berriztarrak eta Ander Martin mallabitarrak bikote sendoa osatzen dute pilotan, eta parte hartu duten azkeneko txapelketak horren lekuko dira. Iazko maiatzean GRAVN txapelketa irabazi zuten; ondoren, uztailean, Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketan nagusitu ziren, eta, joan zen asteburuan San Blas txapelketa ere euren palmaresera gehitu dute.

Finalean 40-31 menderatu zituzten Gandiaga II.a eta Antxia. Berriztarrak erritmo bizia ezarri zuen aurrean, eta Martinek bikain bete zuen bizkartzain lana. Galtzaileak, ondo jokatu arren, gehienetan defentsa lanean aritu ziren.

GRAVN-en, klubak artekoan eta San Blas txapelketan nagusitu dira

Bestalde, Hegoaldeko eta Iparraldeko pilotariak neurtu zituen desafioan, lehenengoek irabazi zuten. Aspuru 40-22 menderatu zuen Camino, eta Arabio eta Larrazabalek gutxi-gatik galdu zuten (37-40) Anchor doki eta Garateren kontra. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA OHOREZKO MAILA

Berriz - Apurtuarte

Zapatuan, 17:30etan,

Berrizburun

GOREN MAILA

Elorrio - Mungia

Zapatuan, 16:00etan,

Eleizalden

LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Etxebarri

Zapatuan, 17:00etan,

Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Gernika

Zapatuan, 16:00etan, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Erandio B

Zapatuan, 16:00etan,

Arripausuetan

Elorrio B - Zaldia B

Zapatuan, 18:00etan,

Eleizalden

Berriz B - Extremeño

Domekan, 11:30etan,

Berrizburun

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Sasikoa - Burlades

Zapatuan, 19:30etan,

Landako kiroldegian

NAZIONAL B MAILA

Elorrioko - Irish Pub

Domekan, 12:00etan,

Elorrioko kiroldegian

EUSKAL LIGA

Kurutziaga - Mallabia

Domekan, 12:00etan,

Landako kiroldegian

Sasikoa B-Eskoriatza

Zapatuan, 17:15etan,

Landako kiroldegian

SASKIBALOIA

BIGARREN ERREGIONALA

Zaldia - Begoñazpi

Zapatuan, 16:30etan,

Zaldibarko kiroldegian



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta
martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe
gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik
ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak
enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10


Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

Iaguntzailak

ABADIÑOKO
UDALAATXONDOKO
UDALADURANGOKO
UDALAELORRIKO
UDALAMALLABIKO
UDALALAUHANKA[>]

Neguan, hilean behin
garbituta nahikoa
izan daiteke; udan,
astero egin behar da

Ur epela ipiniko
dugu, eta xanpuak
zorriak kentzeko
balio badu, hobeto

Sikatzeko, toalla
erabiliko dugu
lehenengo, eta gero
ile-lehorgailua

Katua bainatzeko, gauza bat baino gehiago izan behar dugu kontuan

Etxekoa izan arren, momentu askotan distantzia hartzera behartzen duen animalia da katua. Bere garbiketa arazo bihurtu daiteke, kontu handiz eta kontrolpean egiten ez badugu; hemen doaz aholku batzuk.

Katua animalia berezia da. Bere bizitza misterio bat izan ohi da sarritan; hain da urrunekoa, bakartia, isilekoa... Batek baino gehiagok esan izan du katua ez dela parte onekoa. Baina egia esan, maskota moduan hartuta familiako beste kide bat bilakatzeko da normalean. Hori bai, kontuz eskaintzen diogun tratuagaz; bainatzerako orduan ere, arazoak saihesteko hobe da neurriak aurretik hartzea.

Zenbatero bainatu?

Katua berez oso animalia garbia da. Baina, zelan ez, ez zaio txarto etorriko lantzean behin garbitu bat hartzea. Negu partean, hilean behin bainatzeagaz nahikoa

izan daiteke, baina uda sasoian, egokiagoa da asteroko aldizka-kotasunari eustea.

Dutxa bat hartzeko, adituen arabera komenigarria da bi edo hiru hilabete egin arte itxarotea.

Bainuontzia

Katua ahalik eta eroso sentitu behar da bainuontzian. Horregatik, ez dator batere txarto bainuontziaren behealdean toalla bat ipintzea. Horretara, bere azazkalekin heldu eta labaintzeko arriskua txikiagoa izango da.

Ur epela


Bainua emateko erabiliko dugun ura epela izango da. Horretaz gainera, xanpuren bat

gehitzea ere ez da soberan egongo. Xanpuak, garbitzeaz aparte zorriak kentzeko ere balio badu askoz hobeto. Ile luzeko katua baldin badugu, korapiloak askatzeko beren beregi egindako krema ematea eskertuko digu.

Bestalde, urak belarrietan minik ez eragiteko kotoizko tapoiak ipintzea da aukeretako bat, baina hori lortzeko hartu-eman bikaina izan beharko dugu katuagaz; bestela, jai daukagu.

Lehortu beharra

Behin garbiketa burututa, lehenengo toalla batez sikatuko dugu, eta ondoren ile-lehorgailua erabiliko dugu.





anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitetz, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Muntsarutzen. 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, igogailua, trasteleku eta garajea.4. solairua, ia berria. Prezioa: 217.000 euro. Telefonoa: 688 686 587

Abadiño. Muntsaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eskegitokiarekin, balkoia, garajea eta trasteleku. la berria. Oso polita. Deitu eta ikusi. 615 007 216

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m2 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzia, bero-gailuaren galdara jarri berria, lau armairu enpotratu, aluminiozko leihoak, atek eta zorua aldatuta. Garaje eta igeri-lekuarekin. Tel.: 655 704 684

Durango. Alde Zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondoa), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gresa, berokuntza (gas naturala), kristal bikoi-tzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko. 199.000 euro. 607 715 353

Durango. Kalebarrian, 74 m2. 3 logela, despentsa, egongela, sukaldea eta komuna. Erreformatuta, oso polita. Ganbara. Ikusi gura baduzu deitu inongo konpromiso barik. Tel.: 696 397 387

Durango. 94 m2-ko etxea salgai, Herriko Gudarien plazan (osasu etxe zahararren aurrean). 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekoa. Prezioa: 343.000 euro. Tel.: 615 760 801.

Durango. Andra Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du; oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. Tel.: 696 255 083 (arratsaldeko 17:00etatik aurrera)

Durango. Sasikoa kalean. 71 m2-ko pisua. 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukaldea. 2 balkoi. Kalefakzioa ere badauka. Ganbara eta garajea. Prezio oso ona. Tel.: 679 382 369. Sorkunde

Durango. Martxoaren 8ko kalean. 3 urte ere ez ditu eta oso polita dago jarrita. 80 m2 ditu, bi logela, bi komun, oso polita den sukalde berria eta saloi ederra. Pisu osoa inguratzan 90m2-ko terraza itzela. Kanpora ematen du eta orientazioa paregabea da. Berarekin batera 30m2-ko garajea saltzen da. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 637 416 438

Elorrio. 65 m2-ko etxe berri bat salgai buzkantz kalean. 2 logela, komun bat, sukalde-egongela eta ganbara ederra. Igogailua dauka eta prest dago bizitzera sartzeko. Kokapen oneko etxe polita eta eguzkitsua. Prezio ona. Tel.: 94 682 12 34

lurreta. Etxea salgai askondo kalean. 210.000 euro. 78 m2, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua badago. Garajea ere bai, gura bada. Tel.:94 681 19 48.

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. Tel.: 655 702 647

Mañaria. Bi logela handi, balkoia duen egongela eta sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular (12 m2 eta 8 m2-koak) eta baita terraza komunitarioak ere. Altzariz bete eta guztiz jantzia, bero-gailuaren galdara jarri berria, lau armairu enpotratu, aluminiozko leihoak, atek eta zorua aldatuta. Garaje eta igeri-lekuarekin. Tel.: 655 704 684

Zaldibar. 300 m2-ko baserria berriztuta. 28.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Tel.: 625 705 997

ERRENTAN EMAN

Atxondo. Bi logela alokagai, komunareko eta sukalderako eskubidearekin. Telefonoa: 666 829 510

Elorrio. 50 m2-ko atiko berria alokagai. Logela, komuna eta sukalde-egongela. Igogailua ere badu eta prest dago bizitzera sartzeko... Oso polita. Tel: 606 043 835

ERRENTAN HARTU

Bilbo. Neska langilea Bilbon edo inguruan pixu bila, apartamentua, atikoa, estudioa.... Oso oso ondo zainduko dut! eraitz@gmail.com Telefonoa: 626 86 67 36

Elorrio. Altzariz jantzitako pisu bila nabil alokatzeko. Tel.: 94 658 2191

lurreta. Lagun bi alokatzeko pisu bila dabilza lurretan edo Durangon. Etxea jantzita. Tel.: 675 708 827

OPORRETAKO ETXEA

ERRENTAN EMAN

Durango. Larunsen (Gourette eski estazio ondoan) mobilhomea alokagai, eski denboraldian, astelehenetik ostiralera. Tel.: 678 748 924

PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Durango. Pisukide bila gabilza. Pisuja egoera onean dago. Leku lasaian eta alde zaharretik bi minututara, durangon. Tel.: 679 620 447 edo 646 654 744

Durango. Pertsona bat behar dugu etxea partekatzeko. Durangon, leku onean. Etxe berria. Tel.: 657 72 36 14.

Durango. Pisuja konpartitzeko bi lagun behar dira. Etxe berria eta jantzia. Tel.: 656 771 662.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Lokal ekipatua, altzariekin alokagai, Matiena eta Durango bitarteko errepidean.120 m2. Telefonoa: 619 790 053.

Atxondo. Apatan 40 m2-ko lokala alokagai. Komuna ipinita dauka. Tel.: 686 137 123

Durango. Biltegi modura

erabili daitekeen lokal bat alokagai dago kalebarrian. 20 m2. 200 euro hilean. Tel.: 665 700 461.

lurreta. Pabiloia alokagai Arriandiko industrialdean. 150 m2 beheko solairua. 120 m2 goiko solairua. Tel.: 657 79 45 52.

GARAJEAK

SALDU

Berriz. Itxita. Argia eta ura (azpiegitura berriak). Ate automatikoa, bainua, txokoa eta bodega txiki bat. 41 m2. 2 edo 3 kotxe. Tel.: 615 752 136

Elorrio. Garaje itxia salgai Berrio-Otxoa kalean. Tel.: 658 759 264

ERRENTAN EMAN

Durango. San Inazio auzoan, Produzan. Tel.: 635 743 624. Inaki.

Durango. Azoka plazaren ondoan, Durango erdian. Interesa izanez gero, deitu, mesedez. Tel.: 619 187 799.

Durango. Motorrarentzako garaje partzela bat alokagai, 25 euroan. Erdigunean kokatuta. Saltzeko aukera, 9.000 euroan. Tel.: 665 700 461.

Durango. Plateruen plazan. 65 euro hileko. Tel.: 635 735 759 (Josu)

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Furgoneta bat sartzen den garaje baten bila nabil elorrion, alokatzeko. Tel.: 679 66 63 31

Teknologia

INFORMATIKA

GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpontzen ditut. Etxez etxe joaten naiz konpontzen. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini, etab. Arin eta merke! Tel.: 650 172 285

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

Durango. Neska euskalduna, etxeko lanak, portalak zein tabernak garbitzeko prest. Durangaldean. Kotxea dut. Telefonoa: 946 81 71 74

Durango. Prest nago portalak garbitzeko Durangaldean. Tel: 665 717 458

Durango. Neska gazte bat arratsaldetan garbiketa lanak egiteko prest dago. Interesatuak deitu 615 716 232 ra.

PERTSONAK ZAINDU

Atxondo. Neska gaztea eta euskalduna aste barruan arratsaldez umeak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten nabil. Umeekin esperientzia badaukat, eta autoa ere badaukat. Lanerako prest nago. Tel.: 626 196 885

Durango. Esperientziadun gaztea eta erreferentzia onak dituen a interna edo externa modura lan egiteko prest. Tel.: 686 161 334

Durango. Goizez umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tel.: 665 7174 58 edo mai_egidazu@hotmail.com

Durango. Pertsona nagusien zaintetan interna modura, gauetan edo asteburutan lan egiteko prest. Garbiketa lanetarako edo beste edozein lanetarako ere prest. Esperientzia eta erreferentziekin. Tel.: 679 769 921

Durango. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke, interna edo externa modura. Baita sukaldari moduan ere, jatekxeetan. Tel.: 628 002 217

Durango. Neska euskaldun bat arratsaldeetan haurrak zaindu eta eskola partikularrak emateko prest. Telefonoa: 680 274 327

Durango. Garbiketan jarduteko, umeak edo nagusiak zaintzeko, externa edo interna ezein do orduka lan egiteko prest. Erreferentziekin. Tel.: 690 385 891.

Durango. Garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen aritzeko lan bila nabil. Goizetan 09:30-14:00 eta 18:00-21:00. Erreferentzia onak. Tel.: 681 21 82 30

Durango. Lanaldi osoan edo orduka aritzeko lan bila nabil, pertsona nagusien zaintzan edo garbiketan. Erreferentzia onak. Tel.: 650 61 01 94.

Durango. Neska bat behar dugu 8 urteko alaba goizean eskolara eramateko asteartetan eta ostegunetan. Tel: 625 709 846

Elorrio. Neska euskalduna eta esperientziaduna arratsaldetan edo orduka (astelehenetik ostiralera) haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako tituluduna naiz eta gaur egun hezkuntza berezia ikasten dihardut. Interesa baduzu, deitu: 688 640 604 (arratsaldez).

Elorrio. Neska euskalduna astelehenetik ostiralera bitartean, arratsaldetan edo orduka, pertsona edadetuak pase-aterza ateratzeko prest. Tel: 688 654 291 (arratsaldez deitu)

IRAKASKUNTZA

Durango. 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durango emateko prest. Espezialitate matematika klaseetan.Telefona: 635 74 61 76

Durango. Ingeles maila hobetu nahi? ingelesez irakaslea partikularrak emateko prest. Durango. Tel.: 625 70 98 46

Elorrio. Arratsaldetan klase partikularrak ematen ditut. Interesa baduzu, deitu: 688 640 604

GAINERAKOAK

Durango. Inprenta baten inprimaketa ondorengo lanetarako (tolestu, moztu, kola-tu,...) lan bila nabilen mutil gaztea. 4 urteko esperientzia. Tel.: 620 087 594

Durango. Neska gazte euskalduna, arratsaldez orduka lan egiteko eskaintzen da astelenetik ostiralera, haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo dendari bezala lan egiteko. Tel.: 615 716 232

Durango. Durangoko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Arratsaldetan zein or-

duka izan daiteke (astelehenetik ostiralera). Autoa eta gidabaimena. 639 879 065

Durango. Ileapaintzailea Durango eta inguruetan lan egiteko prest. Telefonoa: 600 666 417

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil durangon edo bilbon. Erreferentzia onak. Tel.: 699 77 57 21.

Durango. Asteburuetarako lan bila nabil, tabernan lan egiteko edo beste edozein lanerako. Kotxea daukat. Tel.: 656 750 534

Durango. Masajeak etxetz, durangaldean. Etxetik mugitu gabe zure gustuko hanketako igurtziak (hanketako erreflexologia), masaje lasaigarriak zein terapeutikoak emango dizkizut. Sesioa: 10 euro (40 min gutxi gorabehera). Sesio berezia (buru eta aurpegiko masaje txoak barne): 15 euro (ordu bete gutxi gora behera). Luis mari. 606 266 244. Mesedez, aurretiaz deitu (egun bat lehenago, gutxienez)

Durango. Igeltserotza lanak, almazen lanak, mendiko lanak, lorategi lanak, etab. Egiteko prest nago. Edozein egunetan hasteko prest. Intersatuak deitu: 638 320 345 (Elmer)

LAN ESKAINTZAK

OSTALARITZA

Eibar. Zerbitzaria. Ezinbestekoa: zerbitzari bezala esperientzia izatea eta Deba behean bizitzea. Lanaldia eta ordutegia zehaztu gabe (ordu aldetik disponibiltatea izatea). Kontratua: al dibaterakoa. Berehala hasteko. Sartu. Erref.: 1022. Telefonoa: 94 620 04 49

